



**Arartekoaren 2015R-1652-14 Ebazpena, 2015eko apirilaren 29koa. Horren bidez, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailari gomendatzen zaio berriz azter ditzan jardun-irizpideak, justifikatu gabeko bertaratze-hutsegite ugari izateagatik etengabeko ebaluazioa izateko eskubidea galtzen denean aplikatzen direnak.**

### Aurrekariak

1. Erakunde honetan gazte baten amak idatzitako kexa bat jaso da. Gazte horrek, 2013-2014 ikasturtean, batxilergoko ikasketak egin zituen Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren menpe dagoen bigarren hezkuntzako institutu batean.

2014ko apirilean, ikastetxe horretako elkarbizitza-batzordeak jakinarazi zion etengabeko ebaluazioa izateko eskubidea galdu egin zuela, justifikatu gabeko bertaratze-hutsegite ugari izateagatik.

Horren berri izan, eta ikastetxeko batzordearen kideekin (tutore, ikasketa-buru eta zuzendariarekin) zein Ikuskapen Zerbitzuaren ordezkariekin hainbat bilera egin ondoren, gaztearen amak, 2014ko ekainaren 4an, idatzizko eskabidea aurkeztea erabaki zuen, Hezkuntza Ikuskaritzak ikastetxearen jarduerari buruzko iritzia eman zezan.

Zehazki, Hezkuntza Ikuskaritzaren erantzunik jaso ez zuenez jo zuen erakunde honetara, aurrerago, 2014ko uztailaren 17an, Bizkaiko Hezkuntza ordezkariak erantzun bazion ere. Bidalitako erantzunaren bidez, ordezkariak burututako ikerketaren emaitza jakinarazi zion interesdunari; izan ere, ikastetxearen jarduera zuzena izan zela ondorioztatu zuen.

2. Kexa izapidetzeko onartzea adostu ondoren eta aipatutako ordezkariaren erantzuna heldu baino lehen, erakunde honek lankidetzara eskatu zion Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailari. Eskareri erantzunez, txosten bat jaso genuen, eta hori kexagileari helarazi genion, bere ustez egokiak izan daitezkeen alegazioak aurkeztu ahal ditzan.

Lehen jarduera horien ondorioz, kexak ukitzen dituen alderdiek defendatutako bertsioen arteko desadostasun nagusiak zehaztu genituen.

Izan ere, gaztearen amaren arabera, behin bakarrik –lehen ebaluazioan, hain zuzen– jaso zuen abisua semeak hainbat bertaratze-hutsegite egin zituela. Handik aurrera, ez zuen abisurik jaso, ez balizko bertaratze-hutsegiteak metatzeari buruz, ezta horien kopuru zehatzari buruz ere. Ez zioten esan hutsegite kopuru zehatz bat izatea azterketara aurkezteko eskubidea galtzeko kausa izan daitekeenik, ezta kopuru hori zein den ere.





Amak behin eta berriz esan du ez diotela idatziz helarazi ikastetxeko elkarbizitza-batzordeak hartutako erabakia. Azaltzen duenez, erabaki hori bere semeari, ahoz, jakinarazi diote, eta dokumentu bat sinatu behar izan arren, ez diote eman horren kopiarik.

Elkarbizitza-batzordearen erabakia jakin ondoren, kexagilea hutsegite, kalifikazio eta ikasleei buruzko beste informazio batzuk jasotzen dituen aplikazio informatikoan sartu zen, bere semeak egindako bertaratze-hutsegiteen kopurua parekatzeko. Konturatu zen justifikatu gabeko hutsegiteetako asko eta asko justifikatuta zeudela, eta hori egiaztatuta dago.

Hezkuntza-arduradunek diote, euren aldetik, Hezkuntza Ikuskaritzak bildutako informazioa oinarri hartuta, ikasturtearen hasierako aurkezpenetan, bai ikasleei, bai gurasoei zuzendutakoetan, tutoreek gidoi batzuei jarraitu dietela, eta horien arabera, justifikatu gabeko bertaratze-hutsegiteen gaia, baita etengabeko ebaluaziorako eskubidea galtzean izan dezaketen eraginarena ere, jorratu dituzte.

Adierazi dute, gainera, ikastetxearen txostenean jasota daudela tutoreak ikaslearen amarekin izandako elkarrizketak: 2013ko urrikoa eta 2014ko urtarrileko eta otsailekoa. Azken horretan, tutorearen arabera, ikaslearen amari idatzi bat eman zitzaion eta horren bidez jakinarazi zitzaion bere semearen egoera ikasgai bakoitzean, etengabeko ebaluazioa izateko eskubidea galtzea dela eta.

Azkenik, aitortu dute hutsegiteak aplikazioan gaizki kudeatu zirela, eta ondorioz, justifikatutako hutsegiteak justifikatu gabekotzat jo zirela. Hala ere, aplikazioan agertu ziren akatsek ez zuten eraginik izan ikastetxearen erabakian. Izan ere, aplikazio informatikoan justifikatu gabekotzat jo ziren hutsegiteak ez ziren kontuan hartu justifikatu gabeko hutsegiteen guztirako kopurua (60 baino gehiago) zehazteko orduan; kopuru horrek eragin zuen etengabeko ebaluaziorako eskubidea galtzea.

Hezkuntza-arduradunen azken erantzuna jasota, kexagileak bere defentsa-gabeziako egoera salatzea erabaki zuen, ikastetxeko elkarbizitza-batzordearen erabakia ezagutu zuenetik egindako kudeaketa guztiak gorabehera, oraindik ere ez baitaki ziur zenbat hutsegiteren ondorioz galdu zuen bere semeak etengabeko ebaluaziorako eskubidea.

Halaber, salatu nahi du, alde batetik, tutorearen arreta eza – kexagilearen ustez, semeari bertaratze-hutsegiteak izateagatik gerta dakiokiena familiari lehenago jakinarazi behar izan baitzion; eta bestalde, etengabeko ebaluaziorako eskubidea galtzeko erabakia hartzeko unea –ikasturtea bukatu baino hogeiki eskola-egun lehenago– horrek ondorio larriak ekarri baitzizkion bere semeari.



Puntu horretan, gure ustez, azalpen bat ematea komeni da: hezkuntza-arduradunen arabera, etengabeko ebaluazioa izateko eskubidea galduz gero, ikaslea bukaerako azterketaren bidez ebaluatu behar da; azterketa horretan erakutsitako gaitasunak neurtzen dira, hortaz, azterketaren emaitzak gaitasun horien eskuratzeko-maila egiaztatzeko balio du.

3. Bertsio bi horiek aztertu eta parekatu ondoren, eta gaztearen amak aurkeztutako keixaren inguruan behin betiko ebazpena eman baino lehen, erakunde honek komenigarritzat jo zuen Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren arduradunei hausnarketa batzuk helaraztea. Horiek ez errepikatzearren, jarraian dauden gogoetetan aipatuko ditugu.

Hausnarketa horietan planteatu dugu egokia izango litzatekeela ikastetxeek ikasleak etengabeko ebaluaziorako eskubideaz gabetu behar dituzten kasuetarako jardun-eredu edo jarraibide batzuk ezartzea, neurri hori aplikatzeak defentsa-gabeziako egoerak sortzea edo arbitrariotzat jotzea saihesteko.

4. Azken jarduera horri erantzunez, hezkuntza-arduradunen txosten bat jaso da erakunde honetan. Garrantzitsua iruditzen zaigu txosten horretan agertzen diren baieztapen batzuk nabarmentzea:

*“Gure ustez, interpretazio hau egin behar dugu: ikasle batek etengabeko ebaluazioaren eskubidea, 2010eko uztailaren 26ko aginduaren 24. artikuluan agertzen diren terminoetan, galtzen badu, ez du portaera desegoki bat zuzendu izanaren edo zigor baten ondorioz galtzen,- horrek, jakina, 201/2008 dekretuan ezartzen diren prozedura-bermeak ekarriko lituzke,- irakasleek ikaslearen aurrerapen akademikoa baloratu ahal izateko behar adina elementu ez dutelako baizik. Horregatik, ikasle horiek izango dute azken azterketa baten bidez baloratuak izateko eskubidea baina azterketa horretan erakutsitako gaitasunak besterik ez dira neurtuko. Horiek horrela, ikasleak gaitasunak zein mailatan menperatzen dituen ziurtatzeko balio du azken azterketa horrek, normalean klasera joaten ez diren beren kasa matrikulatutako ikasleen azterketetan gertatzen den legez.*

*Zentzu horretan, etengabeko ebaluazioaren eskubidea galtzeko eta galera hori familieji, adin txikikoen kasuan, edo ikasleei berei jakinarazteko ikastetxe bakoitzeko AJAK ezartzen duen hutsegiteen muga ikasle guztiek ezagutzea nahiko berme dela dirudi. Etengabeko ebaluaziorako eskubidea galtzeak hutsegiteak egiaztatu behar izatea, ikastetxe bakoitzak ezarrita dituen erregistroen bidez, dakar.*

*Etengabeko ebaluazioa galtzeak aldeztu aurretik ezarri den eta hezkuntza-erkidego guztiak, AJAn agertzearen bidez, ezagutzen duen hutsegiteen kopuruarekin lotura zuzena duenez, ikastetxeek ez dute kasu horietarako prozedura espezifikorik ezarri behar. Izan ere, eta zuzendaritzen beste edozein erabakirekin gertatzen den legez, Lurralde Ordezkaritzari aurkeztu ahal zaio errekurtsua.”*



## Gogoetak

1. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren arduradunek kexa horren ildoan burutu diren jardueren barruan azpimarratu duten bezala, EAEko arloan, badugu 2010eko uztailaren 26ko Agindua, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako aurreko sailburuarena, Batxilergoaren antolamendua eta ebaluazio-prozesua arautzen duena (EHAA, 174 zk., irailaren 9koa).

Agindu horrek, hezkuntza-antolamendurako oinarritzko arauetan ezarritakoarekin bat (Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 36.1 artikulua), xedatzen du ebaluazioa etengabea izango dela hezkuntza-maila horretan.

Era berean, tutoretzaren garrantzia azpimarratu da Aginduan, hain zuzen, ikaslearen banakako jarraipena ziurtatzeko, baita ikaskuntza-irakaskuntza prozesuen garapenean eta ebaluazioan behar bezalako koordinazioa bermatzeko ere. Gainera, Aginduak nabarmendu duenez, tutoreak ikastetxe eta familiaren arteko bitartekotza lana egin ohi du. Izan ere, familiak edozein unetan parte har dezake seme-alaben hezkuntza-prozesuan eta horren bilakaera lagundu, baita ebaluazioari eta hurrengo ziklora igarotzeari buruzko erabakiak ezagutu ere.

Agindu horretan tutoretzari ematen zaion garrantzia aipatzea egokitzat jo dugu, gure ustez, horrek azaltzen baitu ama horrek zergatik hartu duen tutorearen jarduera bere kexaren oinarri – semearen hezkuntza-jarraipena tutore horri zegokiolako.

Ildo horretan, gaiari buruzko ikastetxeak berak eman dezakeen informazioa biltzea komenigarria iruditu zaigu. Horrela zera egiaztatu dugu: “batxilergoaren dosierra” izeneko dokumentuan (aurtengoan, hau da, 2014-2015 ikasturteari buruzkoan), esanbidez agertzen dira tutoreen eginkizun nagusiak, besteak beste: guraso, irakasle eta ikasleen arteko bitartekari lanak egitea, ikaslearen jarraipen akademiko eta pertsonala egitea eta familiei informazioa ematea.

Dokumentu horretan, bertaratze-hutsegiteak kontrolatzeari buruzko atalean, honako hau aurreikusten da: *“ikaslea eskolara etorri ez bada eta justifikatu gabeko hamar ordu baldin baditu, tutoreak etxera deituko du. Irakasleak 30 ordu metatzen dituenean, tutoreak irakasleei jakinaraziko die. 40 ordu metatzen direnean, elkarbizitza-batzordea bilduko da kasua aztertzeko.”*

Ez dakigu horrelakorik aurreikusten ote zen ikastetxearen funtzionamendu-arauetan 2013-2014 ikasturtean, hau da, kexaren arrazoi bihurtu den neurria hartu zen ikasturtean. Horrela izan bada, ez dirudi gazte horren kasuan ikastetxeko arauak ezarritako prozedurari jarraitu zaionik.





Izan ere, eta aurreko esandakoa kontuan hartuta, erakunde honek zera adierazi nahi du: interesdunak planteatutako azken alegazioen artean bereziki kezagarria da etengabeko ebaluaziorako eskubidea galdu zuela semeari jakinarazteko data (ikasturtea bukatu baino 20 eskola-egun lehenago), ondorioz, ezinezkoa izan baitzen gaztearen eskola-errendimenduan neurriak izan zezakeen eragina arintzea.

Hala eta guztiz ere, datu argiagorik izan ezean eta ezagutu ditugun bertsioak kontuan hartuta, egia da ezin dugula gazte horren eta bere familiaren kasuan, zehazki, bertaratze-hutsegiteak kontrolatzeko tutoreak egindako lanari buruzko iritzirik eman.

2. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren arduradunek azpimarratu dutenez, 26 uztailaren 2010 Aginduak berak ezartzen du ikasleak etengabe ebaluatzeko prozesua aplikatzeko, ikasleek normalean ikasgaietako klaseetara eta horretarako programatutako jardueretara joan behar dutela. Hala ere, aginduak ikastetxeen esku utzi du etengabeko ebaluaziorako eskubidea galtzea dakarren gehieneko hutsegite-kopurua zehaztea, ikasturteko eta ikasgai bakoitzeko. Hori guztia, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzko abenduaren 201/20018 2 Dekretuarekin bat.

Halaber, ezinbestekoa da honako ohar hau egitea: xedapen honek ebaluatzeko prozesua etengabekoa izateko beharrezko baldintzak zehazteaz hitz egiten du eta etengabeko ebaluaziorako eskubidea galtzea aurreikusten du, justifikatu gabeko bertaratze-hutsegiteak behin eta berriro egiten badira. Horrek, alabaina, ez du esan nahi neurri hori (eskubidea kentzea) ikasleen eskubideen eta betebeharren inguruan onartutako araudiaz kanpo dagoenik, zehazki, kasu honetan bezalaxe, horrelako eskubideak galtzean edo mugatzean eska daitezkeen bermeak aintzat hartzen badira.

Hori esan dugu, ebazpen honen aurrekarietan aipatu bezala, hezkuntza-arduradunek bereziki nabarmendu baitute ikasle batek etengabeko ebaluaziorako eskubidea galtzen duenean, ez dela izaten jokabide desegoki edo zehapen baten ondorioz; hori dela eta, neurri horrek ez dakartza prozedurako bermeak, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzko abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuak ezartzen dituenak.

Erakunde honen jardueraren barruan hezkuntza-arduradunei helarazi genizkien hausnarketen artean bereziki nabarmendu nahi genuen Euskal Eskola Publikoari buruzko Legeak jasotzen duen konpromisoa, hain zuzen, ikasleei bidegabekeriarik gabeko jardunbidea eta beharrezko prozedura-bermeak ziurtatzeko konpromisoa (15.2 artikulua).





Gauzak horrela, hortik abiatuta, adierazi genuen gure kezka: justifikatu gabeko bertaratze-hutsegiteak jokabide desegokitzat hartu zirenez, agian, Dekretuaren irakurketa partziala edo isolatua egin zen, eta horren ondorioz, etengabeko ebaluaziorako eskubidea galtzeko neurria aplikatzea ahozko izapide huts batera mugatu zen. Hala ere, neurri hori justifikatu gabeko hutsegiteak behin eta berriro egiteagatik aplikatu da, baina ez da bideratu bizikidetzaren aurkako jokabideak zuzentzeko Dekretuak ezartzen dituen prozedurei jarraituz.

Hortaz, eta kezka hori dela eta, Hezkuntza Administrazioako arduradunei galdetu genien kontuan hartu ote zuten inoiz neurria aplikatzeko ikastetxeek jarraitu beharko luketen prozedura zehazteko eredu baten beharra, neurri hori aplikatzeak defentsa-gabeziako egoerak sortzea edo arbitrariotzat jotzea saihesteko.

Kexaren kasu zehatza erabiliz, nabarmendu genuen, interesdunak bere alegazioak Bizkaiko Hezkuntza ordezkariari helaraztea lortu arren, egia esateko, ez zekiela zehazki zenbat hutsegite izateagatik aplikatu zitzaion neurria bere semeari, Hezkuntza Ikuskaritzara 2014ko ekainaren 4an bidalitako idatzian aurkeztu zituen alegazioak gorabehera. Erakunde honen iritziz, ezinezkoa da Hezkuntza Administrazioa inguruabar horietaz ez konturatzea.

Tamalez, hezkuntza-arduradunek bidalitako erantzunak (ebazpen honen aurrekarietan aipatutakoak) erakutsi zigun gure kezka ez zela funtsik gabekoa izan.

3. Hala ere, gure hausnarketei berriz helduz, aitortu behar dugu egia dela ez abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuak (ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzkoa), ezta 2010eko uztailaren 26ko Aginduak ere (batxilergoaren antolamendua eta ebaluazio-prozesua arautzen duena), ez dute aurrekusi berariazko izapiderik etengabeko ebaluaziorako eskubidea galtzeari buruzko erabakia hartzeko eta jakinarazteko. Bakarrik aipatzen dute ez dela posible etengabe ebaluatzea, justifikatu gabeko hainbat bertaratze-hutsegite izanez gero.

Dena dela, xedapen falta horrek ezin du eraman administrazio-prozedura arautzen duen abenduaren 26ko 30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearena aplikatze hutsak sortzen dituen betebeharrak baztertzeraz.

Aurretik aipatu dugunez, eragin handiko neurri baten aurre gaude, batxilergoko ikasketak egiten ari den ikasle orori alde aurretik onartzen zaion eskubide bat galtzeaz ari garelako.

Horregatik, neurria aplikatzea litekeena denean, bereziki zaindu behar da oinarriko izapide edo formaltasunak betetzea, besteak beste, Herri Administrazioen Araubide Juridikoarena eta Administrazio Prozedura Erkideari





buruzko Legearen 84.2 artikulua xedatutako entzunaldiaren izapidea, eta lege bereko 54.1. a) artikulua aipatzen duen arrazoitzeko betebeharra, eskubideak mugatzen dituzten egintzen kasuetan.

Aipatu behar dugu, hala ere, formaltasun horiek ez betetzeak batzuetan ez duela baliogabetzeko adinako garrantzirik izaten. Jakin badakigu, formazko akatsak bakar-bakarrik ekarriko duela deuseztagarritasuna, egintzak bere helburua lortzeko formazko ezinbesteko baldintzak betetzen ez dituenean, edo interesdunak babesik gabe uzten dituenean (Herri Administrazioen Araubide Juridikoarena eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen 63.2 artikulua).

Izan ere, gure hausnarketak hezkuntza-arduradunei helarazi genizkienean, aitortu genuen interesdunak bere defentsarako egokitzat jotzen zuen guztia aurkezteko aukera izan zuela Hezkuntza Ikuskaritzara bidalitako idatzian. Hortaz, balizko defentsa-gabeziako egoeraren lehen urratsa gainditu egin zen. Horrela, hasierako entzunaldiaren eza, formazko irregulartasun hutsa baino ez zen, eragin handirik gabekoa.

Arrazoitzeko betebeharrari dagokionez, jurisprudentziak zehazten du arrazoirik eza egintza baliogabetzen duen akatsa izan daitekeela edo irregulartasun hutsa, baliogabetzeko adinako garrantzirik ez duena, zioak edo arrazoiak ezagutu ez izana administrazioaren erabakiaren oinarri ez bada behintzat, eta ondorioz, defentsa-gabeziaren kausa bihurtu ez bada (ildo horretan, Auzitegi Gorenaren 2011ko apirilaren 14ko Epaia - RJ\2011\3525).

Gainera, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko arduradunen azken erantzuna ikusita, uler daiteke, Hezkuntza Administrazioaren arabera, bertaratze-hutsegiteak kontrolatzeko erabiltzen den aplikazio informatikoa bera bakarrik nahikoa dela erabakia arrazoitzeko betebeharra bete egin dela pentsatzeko.

Zalantzarik gabe, bertaratze-hutsegiteak kontrolatzeko aplikazioa egoki kudeatuz gero, zaila egiten da etengabeko ebaluaziorako eskubidea kentzeko erabakiaren arrazoiketa eztabaidan jartzea, aplikazioak bildutako informazioa erabili bada.

Hala ere, kasu honetan ezin dugu hori esan, interesdunak aplikazioan sartutako datuak berrikusi ondoren, Hezkuntza Ikuskaritzan bere idatzia aurkeztu baitzuen. Izan ere, ez zegoen ados hutsegite batzuk justifikatu gabekotzat hartu izanarekin. Laburbilduz dioenez:

*“1ª evaluación*

*17 faltas no justificadas por el tutor (16 del periodo de convalecencia derivadas de un accidente de tráfico y 1 por la obtención del permiso de conducción.*

*Faltas o ausencias injustificadas: 10*







*2ª evaluación*

*4 faltas no justificadas por el tutor (visitas postoperatorias al Hospital de Galdakao)*

*Faltas o ausencias injustificadas: 22*

*3ª evaluación*

*Faltas o ausencias injustificadas: 20"*

Kontuan hartu behar da, laburpen horren arabera, justifikatu gabeko bertaratze-hutsegiteen guztirako kopurua ez zela 60ra iristen, hau da, ez zen nahikoa izan etengabeko ebaluaziorako eskubidea galtzeko, ikastetxeko antolakuntza- eta jarduera-araudiaren arabera.

Hezkuntza-arduradunek emandako erantzunean, aldiz, eta hutsegiteak kontrolatzeko aplikazioa ondo ez zebilela aitortu arren, honako hau baino ez dute baieztatu: *"Akats baten ondorioz aplikazio informatikoan justifikatu gabekoen artean sartutakoak ez ziren etengabeko ebaluazioa galtzea eragin zuten justifikatu gabeko hutsegiteen (60 baino gehiago) metaketan zenbatu"*. Hortaz, interesdunak arrazoi du, gure ustez, bere burua defentsa-gabeziako egoeran ikusi zuela esaten duenean, ez baitaki seguru zeintzuk izan ziren justifikatu gabeko hutsegiteak, etengabeko ebaluaziorako eskubidea galtzea eragin dutenak.

4. Ebazpen honen aurrekarietan aipatu bezala, kasu honetan, hasiera batean eta gomendio hau eman baino lehenago, erakunde honek hezkuntza-arduradunei planteatu die komenigarria izango litzatekeela ikastetxeentzako jarraibide edo eredu batzuk ezartzea, nahitaez jarrai ditzaten, horrelako neurriak aplikatu behar dituzten bakoitzean.

Aukera hori aipatu genuen Sailak egokitzen jo baitu ikasturtea antolatzeko urteko ebazpenetan ikasleen asistentziari buruzko jarraibideak txertatzea.

Edonola ere, erakunde honen iritziz, Sailak proposamen hori baztertzen badu ere, ezin izango du konpromisoa hartzea saihestu, kexan planteatutakoa bezalako kasuetan, hau da, hutsegiteak kontrolatzeko aplikazio informatikoak dituen datuekiko desadostasunik egonez gero, legezko betekizunak ez betetzeak defentsa-gabezia edo jarduera arbitrarioz ez sortzeko, kexa horretan deskribatutako kasuan gertatu den bezalaxe.

Horregatik guztiagatik, eta otsailaren 27ko 3/1985 Legeak -erakunde hau sortu eta arautzekoak- 11.b) artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, hurrengo gomendio hau aurkeztu nahi diogu Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailari:







## GOMENDIOA

1. Kexa horren kasuan, justifikatu gabekoak balira bezala kontuan hartu diren bertaratze-hutsegiteei buruzko informazio zehatza interesdunari ematea eta etengabeko ebaluaziorako eskubidea kentzeko neurria hartzeko aurreikusitako kopurua (60) baino gehiago ote diren egiaztatzea.
2. Ikasturtearen antolaketari buruzko ebazpenak erabiltzea, jarraibide batzuk bertan gehitzeko. Horiek kontuan hartuta, ikastetxeetako antolakuntza- eta jarduera-araudietan (AJA) ezarriko da hutsegiteen gehieneko kopurua, eta ikasleak muga hori gainditu ondoren, etengabeko ebaluaziorako eskubidea galduko du. Gainera, araudiek jasoko dituzte neurri hori aplikatzeko behar diren formaltasunak, zehazki: ikaslearen eta bere familiakoen entzunaldiaren izapidea, baita, hutsegiteak kontrolatzeko aplikazio informatikoaren edukia zuzen kudeatuta, erabakia behar bezala arrazoitzea ere.
3. Edonola ere, konpromisoa modu aktiboan hartzea, hutsegiteak kontrolatzeko aplikazio informatikoan dauden datuekiko desadostasuna egonez gero, aurretik aipatutako formaltasunak ez betetzeak neurria arbitrarioa izatea edo defentsa-gabezia sortzea saihesteko.

